



## II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### Basauriko Udala

#### Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren Errolda onarpena eta espozizio publikoa 2025.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrean, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bategina onartzen duen martxoaren 17ko 2/1992 Foru Dekretu Arauemailean, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga kudeatzeko arauak ematen dituen azaroaren 16ko 120/2010 Foru Dekretuan eta Basauriko Udaleko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga arautzen duen 2. Ordenantza Fiskalean aurreikusitakoaren arabera, Udal honetako alkate-udalburuak ekonomia-jardueren gaineko zergaren errolda onartzen du; jendaurrean jarriko da Udal Iragarki Taulan, 15 eguneko epean; epe hori iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo biharamunean hasiko da kontatzen, interesdunek azter dezaten eta erreklamazioak aurkez ditzaten.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Errolda jendaurrean jarri jakinarazitako likidazioen aurka, Berraztertze Errekurtsoa jarri daiteke Basauriko Udaleko Alkateari zuzenduta, borondatez ordaintzeko epealdian, edo hori amaitzen denetik hasita, hilabete epean. Errekurtsoa jartzen denetik hasita hiru hilabete igarotzen badira ebazpena eman gabe, hura ezetsizat hartuko, eta orduan, administrazioarekiko auzietako erreklamazioa jarri daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiaren aurrean.

Halaber, Zerga Bilketako Foru Erregelamenduaren 15. eta hurrengo artikuluetan, eta bigarren Ordenantza Fiskalaren 15. artikuluan adierazitakoaren arabera, azken horrek arautzen baitu Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga, udal honen zergadun direnei adierazten diegu, hain zuzen ere, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren ondoriozko zergadunei, 2025. ekitaldiko Erroldari dagokion kobrantza, Borondatezko Epean, hurrengo era honetan egingo dela:

#### Ordaintzeko epea:

Ordainagiria helbideratua izanez gero, banketxeak ordainagiriaren erdia ekainaren 2an kargatuko lieke, eta beste erdia urriaren 6an. Ordainagiria helbideratu gabe balute, urteko ordainagiriaren kopuru osoa apirilaren 1etik ekainaren 2ra bitartean ordaindu beharko lukete.

#### Ordaintzeko tokia eta modua:

Ordainketa egiteko Finantza-erakundeak	Abanca Caja Rural de Navarra Kutxabank	Eskudirutan, Bezeroaren Kontuan Zordunduta edo Kutxazain automatikoetan
	Banco Sabadell	Bezeroaren Kontuan Zordunduta edo Kutxazain automatikoetan
	Laboral Kutxa	Bezeroaren Kontuan Zordunduta
	Caixabank	Kutxazain automatikoetan
Ordainketa helbideraketaren bidez egiteko agindua	Bilketa Atalean telefono, edo e-mail bidez, edo Herritarren Informazio eta Arretarako Bulegora etorrita	
	Fidantza Erakunde Laguntzailean, aldizkako zerga bat ordaintzean	



Internet bidezko ordainketa	<a href="https://sede.basauri.eus">https://sede.basauri.eus</a>	Basauriko Udaleko web orrian sartuta, jasotako ordainketa-gutunarekin, eta «Egoitza Elektronika – Nire Ordainketa» aukera erabilita Ordainketa Erakunde Laguntzaileen on-line bankuaren erabiltzailearekin edo ordainketa txartelarekin. Edo beste edozein Finantza Erakunderen ordainketa txartelarekin, Erakunde Laguntzaile ez izan arren. Edo Bizum-en bidez.
-----------------------------	---	---

Etxera bidalitako ordainketa-gutuna jaso ez arren, berdin-berdin ordaindu beharko da zerga-zorra. Ordainagiria edukiko ez bazenu, eskatu Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ). Helbideratzea aldatuko bazenu, horren berri eman iezaiozu Zerga Bilketako Bulegoari 2025eko maiatzaren 23an baino lehen.

Epe horretan ordainketarik egin ez duten zergadunei premiamendu bidez ordainaraziko zaie, dagozkion errekarquak aplikatuta.

Horixe azaldu nahi izan da jendaurrean, jendeak jakin dezan eta hura bete dadin.

Basaurin, 2025eko otsailaren 28an. — Ogasun, Kontratazio eta Ondare Arloko Ordezkarria (2899/2023 Dekretuaren bidez izenpea eskuordetzea), Berta Montes Beltrán